



**LANBIDE HEZIKETAKO SAILBURUORDEZAKO PLANGINTZA ETA
ANTOLAKETA ZUZENDARIAREN JARRAIBIDEAK, 2024-2025eko
PRESTAKUNTZA DUAL INTENTSIBOA ANTOLATZEKO**

Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 28ko 4/2018 Legearen helburu nagusia eta estrategikoa da izaera dualeko lanbide-heziketa bultzatzea eta garatzea, Euskadin ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa duala deitu dena.

Historikoki, Administrazioaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko lankidetzaren bidez, eta enpresa-elkarte eta erakunde sindikalekin batera, hainbat esperientzia egin dira enpresako jarduna eta ikastetxeetako prestakuntza txandakatzeko. Esperientzia horien bidez, erantzun egokiagoa eman zaio produkzio-sareari, eta, hartara, pertsonen enplegarritasuna hobetu da.

Esperientzia horiek balorazio ona izan dute, eta, horregatik, bultzatu behar dugu are gehiago gara daitezen gure produkzio-sistematikiko harremanak. Eta horretarako, enpresa-ehunaren eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko lankidetzaren indartu behar da, bi horien artean balioa sortzeko. Horrela, are gehiago sakondu ahal izango dugu gure Lanbide Heziketaren indarguneetako batean: gertutasuna eta lankidetzaren izatea Euskal Administrazioaren, Lanbide Heziketako ikastetxeen, enpresen, enpresa-erakundeen eta erakunde sindikalen artean.

Testuinguru horretan, hau ezartzen du aipatutako ekainaren 28ko 4/2018 Legeak: Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren arloan eskumena duen sailak Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresa zein enpresa-erakundeen eta erakunde sindikalen arteko partaidetza- eta lankidetzaren moduak sustatuko dituela, eta Lanbide Heziketa duala bultzatuko duela, modalitate guztietan. Ildo horretatik, Lanbide Heziketako ikastetxeen eta gizarte eragileen arteko lankidetzaren bultzatuko da, mota horretako heziketa sustatzeko, bai ikastetxeetan, bai enpresetan.

Gainera, prestakuntza dualari beste bultzada bat eman behar zaiola ikusi da, zerbitzu-sektoreak eta industria-sektoreak parte har dezaten, eta, bereziki, mikroETEEK, saltoki txikiek, hurbileko saltokiek eta autonomoek.



Lanbide Heziketa antolatu eta integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoan Lanbide Heziketaren izaera duala adierazten da, araubide orokorra eta erregimen intentsiboa honako hauen arabera bereiziz:

- a) Enpresa edo erakunde parekatuaren prestakuntzaren iraupena.
- b) Prestakuntzaren garrantzia enpresa edo organismo parekatuan, curriculumaren garapenean.
- c) Prestatzen ari den pertsonaren estatusa.

Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuak honako hau ezartzen du, besteak beste:

106. artikulua – b) Araubide intentsiboan, 3/2022 Lege Organikoaren 67. artikuluan eta xedapen honetan ezarritakoaren arabera arautuko da. Heziketa-zikloaren curriculumaren guztizko iraupenaren % 35 eta 50 artekoa izango da, eta, gutxienez, lanbide-moduluen ikaskuntzaren emaitzen % 30 jasoko du. Halaber, lan-legerian jasotako prestakuntza-kontratuaren esparruan egingo dira.

Bosgarren xedapen iragankorra. Beka-sistematik lanbide-heziketa trinkoko erregimeneko prestakuntza-kontratura igarotzea.

Heziketa Dualeko eredu berri honen aurreko eredutik Erregimen Intentsiboko Heziketa Dualerako trantsizio-prozesua bizitzen ari gara, eta gure dekretuak eguneratzen ari garen bitartean, beharrezkoa ikusten dugu eredu hori antolatzeko jarraibideak ezartzea, eta horregatik jartzen ditugu jarraibide hauek Lanbide Heziketako ikastetxeen eskura.

1.- Eredu Dual Intentsiboren helburuak:

- a) Lanbide Heziketako ikasleen gaitasunak hobetzea, enpresako prestakuntza-orduak handituz.
- b) Enplegarritasuna handitzea, lan-ingurunean esperientzia eta prestakuntza-maila handiagoa egiaztatzean.
- c) Enpresa eta erakunde parekatuei eredu Dual horretarako sarbidea erraztea.



2.- Hartzailleak:

Honako baldintza hauek aldi berean betetzen dituzten ikasle guztiek parte hartu ahal izango dute:

- a) LHko Sailburuordetzak baimendutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeren batean matrikulatuta egotea.
- b) Oinarrizko, erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloren batean (D graduan) edo espezializazio-ikastaroren batean (E graduan) matrikulatuta egotea.
- c) Enpresa edo erakunde parekatuan lanean hasi zenetik 16 urte bete dituela egiaztatzea.
- d) Aurretik prestakuntza dual intentsiboa egin ez izana prestakuntza-maila bereko eta produkzio-sektore bereko prestakuntzan.

3.- Ezauqarriak:

- a) Oro har, 1. maila amaitu eta kurtso horretako prestakuntza-modulu guztiak gainditu ondoren egingo da. Aldi hauetan egin ahal izango da:
 - o Ekainetik ekainera.
 - o Uztailetik ekainera.
 - o Irailetik ekainera.
 - o Urritik ekainera.
- b) Ikas-ekinezko prestakuntza-kontratu baten bidez edo beka-sistemaren bidez egin ahal izango da. Azkena 2028ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean, behin-behinekoz.
- c) Erdi-mailako eta goi-mailako enpresako prestakuntzak eta espezializazio-kurtsoek prestakuntzaren iraupenaren % 35 eta % 50 bitarteko iraupena izango dute, eta lanbide-moduluen ikaskuntza-emaitzen % 30 jasoko dute gutxienez.

Oinarrizko graduan, prestakuntzaren iraupenaren % 35 eta % 50 artekoa izango da, eta lanbide-esparruko ikaskuntza-emaitzen % 30 jasoko dute gutxienez.



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
Dirección de Planificación y Organización

Adibidez, erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-ziklo batean (2.200 orduko iraupena).

Enpresako gehieneko orduak = 1.100 ordu (% 50)

Enpresako gutxieneko orduak = 770 ordu (% 35)

Lan-ikuspegitik, enpresako prestakuntza hori ezingo da izan enpresan aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan aurreikusitako gehieneko lanaldiaren edo, halakorik ezean, legezko gehieneko lanaldiaren % 65 baino handiagoa lehen urtean edo % 85 baino handiagoa bigarren urtean.

Adibidez, 1.700 orduko hitzarmen batentzako

Enpresako prestakuntza-orduak gehienez = 1.105 ordu urtebeteko epean.

Uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretua eta Langileen Estatutua aldi berean betetzeko, erregimen intentsiboko enpresako prestakuntza-plana prestatzerakoan, enpresako prestakuntza-orduak 770-1.100 orduko tartean hautatuko ditugu.

Espezializazio-kurtsoek, ikas-ekinezko prestakuntza-kontratuaren modalitatean, kontratu horrek gutxienez hiru hilabeteko iraupena izango du.

Adibidez, 900 orduko espezializazio-ikastaro batean.

Enpresako gehieneko orduak = 630 ordu

Enpresako gutxieneko orduak = 441 ordu

Zentroko gutxieneko orduak = 630 ordu

Adibidez, 600 orduko espezializazio-ikastaro batean.

Enpresako gehieneko orduak = 420 ordu

Enpresako gutxieneko orduak = 295 ordu

Zentroko gutxieneko orduak = 420 ordu

Espezializazio-programa bat lotuta duten heziketa-zikloetan, bi urtetan egin ahal izango da erregimen intentsiboko prestakuntza duala

d) Ezin izango da gauzatu kontratuari edo bekari dagokion jarduera edo lanpostua ikasleak enpresa berean sei hilabete baino gehiagoz bete badu.

e) Ezin izango da aparteko ordurik egin.



- f) Jardueraren izaerak hala eskatzen duen sektoreetan (adibidez, ostalaritzan, okintzan, arrantzan...), gaueko ordutegian edo txandaka egin ahal izango dira jarduerak. Nolanahi ere, ikaslearen berariazko onarpena beharko da, edo, ikasle adingabeen kasuan, gurasoen edo legezko tutoreen berariazko baimena.
- g) Bi modalitate horietako edozeinetan (kontratua edo beka), ikasleak Gizarte Segurantzari alta emanda egongo dira enpresa edo erakunde parekatuaren aldetik.
- h) Istripuetarako eta erantzukizun zibileko aseguru osagarriaren poliza bat kontratatuko da ikasleentzat, programaren esparruan enpresan jarduten duten bitartean.
- i) Beka-modalitateko zenbatekoa ezin izango da une bakoitzean indarrean dagoen Lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoa izan, enpresa edo erakunde parekatuan benetan emandako denboraren proportzioan.

Txandakako prestakuntza-kontratuaren modalitatean, Langileen Estatutuak finkatutakoa izango da.

- j) Beka-modalitatean, jarduera Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa edo erakunde parekatuetan egingo da.

Kontratua beste autonomia-erkidego batzuetan egin ahal izango da.

4.- Lanbide-heziketa Dual intentsiboa planifikatzea enpresa edo erakunde parekatuan.

LHko zentroak eta enpresa edo erakunde parekatuan prestakuntza-jardueren banaketa adostu beharko dute. Banaketa hori dagokion prestakuntza Dual intentsiboko planean zehaztuko da, eta honako atal hauek izango ditu, eredu berri honen helburuak betetzen direla bermatzeko. Hauek dira atal horiek (659/2023 EDren 157. artikulua):

1. LHko titulua eta eskaintza egiten deneko araubide orokorra edo intentsiboa identifikatzea.
2. Parte-hartzaileen identifikazioa.
3. Ikasleak ikaskuntzak enpresa edo erakunde parekatuan garatuko dituen lanpostuaren identifikazioa.



4. Ordutegi-banaketa eta egutegia. Kontuan izan ikaslea adingabea den.
5. Curriculumean jasotako ikaskuntza-emaitzen arabera programazioa eta enpresa edo organismo parekatuan, ikastetxean edo elkarrekin egin beharreko jardueren zerrenda.
6. Aurreikusitako ebaluazio-sistema.
7. Ikastetxeko eta enpresako tutoreak ikasleei arreta emateko plana eta haren aldizkakotasuna. Halaber, enpresa edo erakunde parekatuko prestakuntzan zehar egin beharreko ikasketen jarraipen-mekanismoak adieraziko dira.
8. Ikasleen konpromisoa prestakuntza-programa Duala enpresan garatzeko. Ikasle adingabeen kasuan, adingabearen gurasoek edo legezko tutoreek sinatuko dute konpromiso hori.
9. Enpresan edo erakunde parekatuan prestakuntza-aldiak garatzeko laguntza-premia espezifikoak dituzten pertsonentzat beharrezkoak diren neurriak, laguntzak eta egokitzapenak, hala badagokio.

5.- Ikasleen ebaluazioa

- a) Ikasleen ebaluazioa jarraitua izango da, eta lanbide-moduluka egingo da.
- b) Ebaluazio hori lanbide-heziketako ikastetxeko lanbide-moduluetako irakasleen ardura izango da, enpresako tutoreen ekarpenak eta bertan garatutako jarduerak kontuan hartuta.
- c) Araubide intentsiboko prestakuntza dualean parte hartzen duten ikasleak IDEan bereizitako talde batean agertuko dira, eta bi deialdiak errespetatuz ebaluatuko dira, ekaina amaitu baino lehen.
- d) Ikasleren batek ez badu gaintitzen araubide trinkoko lanbide-heziketa dualeko planean jasotako lanbide-moduluren bat, lanbide-heziketako ikastetxe batean jarraituko du ohiko prestakuntza-programa, eta dagokion enpresan egin beharko du prestakuntza.

6.- Izapidetzea

- a) Prestakuntza-zentroek enpresaren datuak, hitzarmeneko orduak, modalitatea eta enpresan eta ikastetxean egoteko egutegia eta ordutegia LHko Dualeko aplikazioan beteko dituzte.



- b) Plana onartu ondoren, ikasleari esleituko zaio, ikastetxeko tutorea eta enpresako tutorea barne. Hori LH Dualeko aplikatiboan egingo da, eta horrek ikaslearen konpromiso-dokumentua sortuko du.
- c) Ikastetxeak eta enpresak lankidetzeta-hitzarmena sinatuko dute beka-modalitatearen kasuan, edo ikas-ekinezko prestakuntza-kontratua, enpresaren eta ikaslearen artean, hala badagokio.
- d) Ikasle adindunek, edo, ikasle adingabeen kasuan, gurasoek edo legezko tutoreek, idazki bat sinatu eta aurkeztu beharko dute prestakuntza-zentroan, jarduera hasi baino lehen. Idazki horren bidez adierazi beharko dute programari buruzko informazioa jaso dutela, eta enpresaren, lantokiaren eta lanbide-heziketako zentroaren barne-arauak zorrotz beteko dituela.

7.- Adingabeak

Adingabeen kasuan, egoera horren berri eman behar zaio enpresari edo enpresa parekatuari erakundeari, eta honako informazio hau eskatu:

- a) Egin beharreko zereginak deskribatzea.
- b) Adingabeak prestakuntza egingo duen lanpostuaren arriskuen ebaluazioa (Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/95 Legearen 27. artikuluan xedatutakoaren arabera).
- c) Adingabeari eta gurasoei/legezko tutoreei lanpostuaren arriskuei eta prebentzio-neurriei buruzko informazioa ematea.

8.- Tutoretza

LHko ikastetxeko tutoreak ikasle partehartzaile bakoitzaren jarraipena egingo du. Enpresa edo erakunde parekatuaren tutorearekin harremanetan jarri beharko da, gutxienez hilean behin, eta bilera presentzial bat egin beharko du enpresarekin, gutxienez hiruhileko bakoitzean. Jarraipena egiteko, fitxa bat bete beharko da, eta enpresan edo erakunde parekatuan egindako jarduerak ere aipatuko dira.



9.- Prestakuntza formalizatzea

Ikastetxeek honako hauek egin beharko dituzte:

- a) Parte hartzen duten ikasleen azken ebaluazioa: ebaluazio-saioa egin ondoren, gai aukera hautatu beharko da ikaslea LH Dualeko aplikazioaren esleipenean.
- b) Ikasturtearen amaierako memoria: prozesuan zehar sortutako dokumentazioa biltzea eta gertatu diren gorabehera garrantzitsuak adieraztea. Amaierako memoria hori lanbide-heziketako ikastetxean gorde beharko da.
- c) Gogobetetze-inkestak: Ikasturtearen amaieran ikasleei, enpresei eta tutoreei pasako zaizkien inkestak emango zaizkie ikastetxeei.
- d) Laneratzea: Lanbide Heziketa Dualeko aplikazioan, amaitzen duten ikasleen laneratze-maila adieraziko da, bai eta aurreko urtean amaitu zuten eta duela bi urte amaitu zuten ikasleen lan-egoera ere.

10.- Akreditazioa

Arrakastaz amaitu duten ikasleek ziurtagiri bat jasoko dute, enpresako prestakuntzaren iraupen osoa jasoko duena. Ziurtagiri hori automatikoki sortuko da LH Dualeko aplikazioan, prestakuntza amaitu eta ikaslearen esleipenean gai izateko aukera hautatu ondoren.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko uztailaren 2an

Sinatuta:

**PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA ZUZENDARIA
DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN Y ORGANIZACIÓN**